



LichtBus

FUNTSEZKO ELKARTEA

Funtsezko elkarteak, negozio-ereduak funtzionatzea ahalbidetzen duten hornitzaile- eta bazkide-sareak osatzen dituzte. Askotariko arrazoiengatik ezar ditzake itunak enpresa batek: Bere negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko, baliabideak eskuratzeko.

Gure proiektuaren hornitzailea Opaniel marka da. Opaniel Matrix Electronica S.L enpresaren marka bat da. Enpresa honek Durangon denda bat dauka, eta horregatik aukeratu dugu gure hornitzaile. Horretaz gain, LED argietan espezializatua dago, horrek esan nahi du, energia gutxiago gastatuko duela eta ez liteke denbora luzean aldatu beharko. Opaniel, sektore eta erabilera zehatzetarako espezializatua dago.

Bazkide baten bila egon gara eta Bizkaibus-rekin akordio batera heldu gara, eta gure bazkidea izango dela esan digu. Akordio horren bitartez, Bizkaibusek gure sistemaren zerbitzuak jarriko ditu frogatutako A-3913 (Arrazola-Durango) linean

Bizkaibus bazkidetzat hartzean, gure arriskuak murriztu ditugu. Bizkaibusek diru-laguntzetan lagunduko digu. Finantzaketan laurden bat jarriko du.

Aldi berean, Bizkaibusek bezeroei zerbitzu hobego bat eskeinituko die. Horrela, beraien zerbitzuak erabiltzera bultzatuko ditu bezeroak, beraz, beraien irabaziak handituko dira,

Hau ikusita, bion artean onuratuko gara.